



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko urtarrilaren 15a

7. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Iruñeko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2012ko ekitaldiko, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Iruñeko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2012ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko abenduaren 9an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Kontuen Ganberak emandako fiskalizazio-txostena, Iruñeko Udalari buruzkoa, 2012ko ekitaldikoa, ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Erabakia Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2013ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Iruñeko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2013ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (3. or.).
- II. Entitatearen deskribapena eta aplikatzekoa den araudia (4. or.).
 - II.1. Datu orokorrak (4. or.).
 - II.2. Araudia (7. or.).
- III. Helburua (8. or.).
- IV. Norainokoa (8. or.).
- V. Iritzia (9. or.).
 - V.1. Udalaren kontua (9. or.).
 - V.2. Udalak legedia betetzea. (9. or.).

V.3. Egoera ekonomiko-finantzario bateratua (9. or.).

V.4. Aurreko ekitaldietako gomendioen betetzea (12. or.).

VI. Finantza egoera bateratuak (13. or.).

VII. Ondorioak eta gomendioak (15. or.).

VII.1. Aurrekontua eta Kontu Orokorra (15. or.).

VII.2. Udaleko langile-gastuak (16. or.).

VII.3. Udalaren ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea (18. or.).

VII.4. Udalaren inbertsioak (21. or.).

VII.5. Udalaren transferentziengatiko gastuak (23. or.).

VII.6. Tributuak, prezio publikoak eta Udalaren bestelako diru-sarrerak (26. or.).

VII.7. Ondare bidezko diru-sarrerak (28. or.).

VII.8. Udalaren inbertsio errealeen besterentzea (28. or.).

1. eranskina. Gastuen eta diru-sarreraren aurrekontu-betetzea, kapituluaren arabera (2006-2012) (30. or.).

2. eranskina. Emaitzak (2006-2012) (31. or.).

3. eranskina. Adierazleak (2006-2012) (32. or.).

Iruñeko Udalaren urteko kontu bateratuen oroitidazkia, 2012ko abenduaren 31ri dagokiona.

(Oharra: Aipatutako eranskina foru parlamentarien esku dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan eta honako web helbidean:

www.cfnavarra.es/camara.comptos).

I. SARRERA

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Kontuen Ganberak Iruñeko Udalak 2012ko ekitaldian izandako jarduera finantzarioari buruzko arauzkotasunaren fiskalizazioa egin du.

Lan hau sartu zen Kontuen Ganberak 2013rako onetsi zuen fiskalizazio-programan, eta kontu-ikuskaritzako bost teknikarik eta kontu-ikuskari batek osatutako lantaldeak egin zuen, betiere Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntzarekin. Landa-lana 2013ko maiatzetik irailera egin zen.

Txostenak zazpi atal dauzka, sarrera hau barne, eta hiru eranskin. Bigarren atalean Udalaren administrazio- eta antolamendu-egitura deskribatzen dugu, bai eta 2012an aplikatzekoa den araudia ere. Hirugarren eta laugarren ataletan, egindako lanaren helburua eta norainokoa erakusten ditugu, hurrenez hurren; eta bosgarrenean, berriz, Udalaren Kontuari buruzko iritzia, legezketasunaren betetzea, egoera ekonomiko bateratuta eta gomendioen betetzea azaltzen ditugu. Seigarren atalean, egoera-orri bateratuak gehitu ditugu. Azkenik, zazpigarrenean, fiskalizazioaren ondorio aipagarrienak azaldu eta udal kudeaketa hobetzeko egokitzat jotzen ditugun gomendioak ematen ditugu. Eranskinetan, 2006tik 2012ra bitarteko aurrekontu-betetzea eta aldi horretako finantza-egoera bateratuaren bilakaera erakusten ditugu.

Fiskalizazio-txostenarekin batera 2012ko ekitaldiko urteko kontu bateratuen oroitidazkia, Udalak eginikoa, erantsi dugu.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Udaleko, haren erakunde autonomoetako, enpresa publikoetako eta fundazioetako langileei, lan hau egiteko emandako laguntzarengatik.

II. ENTITATEAREN DESKRIBAPENA ETA APLIKATZEKO DEN ARAUDIA

II.1. DATU OROKORRAK

Iruña udalerrri bat da, 2012ko urtarrilaren 1ean zuzenbideko 197.604 biztanle zituen eta 25,098 km²ko azalera duena.

Udalaren antolamendua, besteak beste, beharrezkoak diren ondoko organo hauek osatzen dute: Osoko Bilkura, zeina ordezkari politiko gorenaren organoa baita, Tokiko Gobernu Batzarra eta alkatea.

Udalaren administrazio-egitura, Alkatetzaren 2011ko ekainaren 27ko Dekreturen bidez onetsia, honakoa da:

- Alkatetzaren Kabinetea
- Aholkularitza Juridikoaren Zuzendaritza.
- Gerentzia.
- Gobernuko zortzi alorrak.

Alkatetzaren Kabinetea, Aholkularitza Juridikoaren Zuzendaritza eta Gerentzia zuzenean alkatearen menpekoak dira, eta gobernuko zortzi alorrak zinegotzi delegatuen menpekoak dira.

Zortzi alorrek 11 zuzendari, bi zuzendariorde –Gizarte Ongizatearen eta Berdintasunaren alorretan– eta 11 idazkari tekniko daukate. Zortzi alorretatik hiruk –Gizarte Zerbitzuak; Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurumena, eta proiektuak eta Hiri Kontserbazioa– bina unitate organiko daukate, eta unitate horietako bakoitzaren buruan alorreko zuzendari bat eta idazkari tekniko bat daude.

Udalak, zerbitzu publikoak kudeatzeko, ondoko enteak sortu ditu:

- Erakunde autonomoak
 - a) Udalaren haur-eskolak: haur-eskolen zerbitzua kudeatzeko.
 - b) Hirigintzako Udal Gerentzia: Iruñeko udalerrriaren hirigintza kudeatzeko.
- Merkataritza-sozietateak.

Udalak partaidetzaren gehiengoa dauka honako merkataritza-sozietateetan:


Enpresa	Partaidetzaren ehunekoa	Sozietatearen xedea
Comiruña, S.A.	100	Mercados minoristas
Pamplona Centro Histórico S.A.	100	Hirigune historikoaren hirigintza
Asimec, S.A.	100	Etxez etxeko laguntza
Animsa	77,69	Udal informatika.
Mercairuña, S.A.	51	Handizkako merkatuak

- Gayarre Antzokiaren Fundazioa, Gayarre antzokia kudeatzeko eta administratzeko.

Gainera, Erruki Etxearen Fundazioa, hirugarren adinekoei laguntza ematen diharduena, Iruñeko Udalarri lotuta dago orain dela 300 urte baino gehiago, baina, gure aburuz, fundazio pribatu bat da.

5

Honakoa da Iruñeko Udalaren eta haren menpeko enteen egitura –ente horien artean Erruki Etxearen Fundazioa sartu dugu–:



(1) Administrazio orokorrean, Gerentzia, Aholkularitza Juridikoaren Zuzendaritza eta Alkatetzaren Kabinetea daude, zeinak alkatearen menpe baitaude.

Udalaren eta haren menpeko enteen datu ekonomiko eta langileei buruzko datu nagusiak honakoak dira 2012ko ekitaldiaren itxieran:

Administrazioaren sektore publikoa.

	Aitortutako eskubideak	Aitortutako betebeharrak	Langileak, 12-31n
Udala	202.402.091	186.912.781	1.202
Hirigintza Gerentzia	28.773.009	23.121.809	30
Haur-eskolak	7.524.569	7.440.427	169

2012an, Udalak 5.235.614 euroko ekarpena egin zien haur-eskolei, eta 5.544.957 euroko ekarpena, berriz, Hirigintza Gerentziari.

Merkataritza-sozietateak.

Enpresak	Diru-sarrerak	Gastuak	Ekitaldiko emaitzak	Enplegatu kopuruaren batez bestekoa
Comiruña, S.A.	600.209	492.768	107.441	6,77
Mercairuña, S.A.	1.365.218	1.160.020	205.198	14
ANIMSA	6.501.139	6.486.806	14.333	112
Pamplona Centro Histórico S.A	1.514.854	1.761.894	-247.040	4
Asimec, S.A.	1.801.545	1.635.743	165.802	62,81

Fundazioa.

Fundazioa	Diru-sarrerak	Gastuak	Ekitaldiko emaitzak	Enplegatu kopuruaren batez bestekoa
Gaiarre Antzokia	1.982.741	1.984.544	-1.803	15

Horretaz gainera, Erruki Etxeak honako datu ekonomikoak dauzka:

	Diru-sarrerak	Gastuak	Ekitaldiko emaitzak	Enplegatu kopuruaren batez bestekoa
Erruki Etxea	18.174.124	16.744.094	1.430.030	201,82

Udala Iruñerriko Mankomunitateko kidea da, eta haren bidez kudeatzen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak (ur-hornidura eta behe presioko saneamendua), hiri-hondakin solidoen tratamenduko zerbitzuak eta hiri-garraioko zerbitzuak (autobusa eta taxia).

II.2. ARAUDIA

2012an zehar, Iruñeko Udalak bete beharreko araudia nagusiki honako lege eta erregelamendu hauek osatzen dute:

- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea.
- Martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea, Nafarroako toki ogasunei buruzkoa.
- Urriaren 29ko 11/2004 Foru Legea, Nafarroako Toki Araubidea Gaurkotzekoa.
- Apirilaren 2ko 7/1985 Legea, toki araubidearen oinarriak arautzen dituena.
- Abenduaren 16ko 57/2003 Legea, tokiko gobernua modernizatzeko neurriei buruzkoa.
- Abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileriaren Estatutuaren Testu Bategina onetsi zuena.
 - Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legea, ekainaren 9koa, otsailaren 14ko 1/2007 Foru Legeak, 6/1990 Foru Legea toki-kontratazioari dagozkionetan aldatzen duenak, toki-entitateentzat ezarritako berezitasunekin.
- Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, diru-laguntzei buruzkoa.
- Abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legea, lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzkoa.
- Azaroaren 26ko 30/1992 Legea, herri administrazioen araubide juridikoari eta administrazio prozedura erkideari buruzkoa.
- Abenduaren 2ko 16/1997 Foru Legea, Iruñeko Hiriburutza Agiria ezartzen duena.
- 270/1998 Foru Dekretua, 271/1998 Foru Dekretua, 272/1998 Foru Dekretua eta 273/1998 Foru Dekretua, irailaren 21ekoak, aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta Nafarroako Toki Administrazioarako Kontabilitate Instrukzioaren onesteari buruzkoak, hurrenez hurren.
- Kontabilitate publikoaren plan orokorra, toki-administrazioari egokitua, Ekonomia eta Ogasun Ministerioak 1990eko uztailaren 17ko aginduaz onetsitakoa.
- Apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa, aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzkoa.
 - 20/2012 Errege Lege-dekretua, uztailaren 13koa, aurrekontuen egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna bultzatzeko neurriei buruzkoa.
- 2012ko aurrekontuaren betetze-oinarriak, 2012rako luzatu direnak.
- Ordenantzak eta 2012rako zerga-arauak.
- Diru-laguntzen Ordenantza Orokorra.
- Udalaren 1998ko otsailaren 27ko erregelamendu organikoa.
- Alkatetzaren 2011ko ekainaren 27ko dekretua, udal antolamenduari buruzkoa.

III. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Iruñeko Udalaren 2011ko ekitaldiko arauzkotasunari buruzko fiskalizazioa egin genuen.

Lana honen xedea gai hauei buruz gure iritzia ematea da:

- Ea 2012ko ekitaldiko Kontu Orokorrak bere alderdi nagusi guztietan behar bezain irudi doia erakusten zuen, 2012ko abenduaren 31n, ondareari, finantza-egoerari, aurrekontuaren likidazioari eta ekonomia-emaitzari buruz, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz.

- Ea Udalak legeak bete dituen 2012ko ekitaldian izandako jarduera finantzarioan.
- Udalaren eta haren menpeko enteen finantza-egoera bateratua 2012ko abenduaren 31n.
- Ea 2011ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio-txostenean emandako gomendioak bete diren.

IV. NORAINOKOA

Fiskalizazioaren norainokoa 2012ko Kontua da. Haren prestaketa eta edukia Udalaren erantzukizuna da eta, 272/1998 Foru Dekretuaren arabera, honako kontabilitateko egoera-orriek osatzen dute:

- Aurrekontuaren likidazioaren espedientea.
- Egoera-balantzea eta galeren eta irabazien kontua.
- Eranskinak: diruzaintzako egoera-orria, etorkizunerako hitzartuta dauden gastuen eta diru-sarreraren egoera-orria, balioen egoeraren egoera-orria eta mugimendua, eta tasa eta prezio publikoekin finantzatutako zerbitzuen kostuei buruzko oroitidazkia.

Fiskalizazio-lana honetan zetzan: Udalaren barne kontrola, aurrekontuko gastu eta diru-sarreraren lagin bat eta ondare-kontuak aztertzea, hautapen-proba batzuen bitartez eta lanaren xedea betetzeko beharrezkotzat jotzen diren kontu-ikuskaritzako beste teknika batzuk erabiliz.

Halaber, kanpoko profesionalak enpresa publikoetan eta Gayarre Antzokia udal fundazioan eginiko kontu-ikuskaritzak aztertu ziren.

Orobat, Udalaren finantza-egoera eta finantza-egoera bateratua aztertu ziren –hau da, Udalarena, erakunde autonomoena eta partaidetza osoa duen sozietateena batera biltzen dituen–.

Lana egin zen Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan garatutako sektore publikoaren kontu-ikuskaritzari buruzko printzipioei eta araei jarraituz.

V. IRITZIA

Honakoa da arauzkotasunari buruz eginiko fiskalizazioaren inguruko iritzia, lanaren norainokoa kontuan hartuta:

V.1. UDALAREN KONTUA

Udalak udal montepioari atxikitako funtzionarioen pentsioei buruzko azterlan aktuarial bat badauka. 2009an eginiko azterlan horren arabera, pasiboen sistematik eratorritako betebeharrak, batez beste, urteko 21 milioi eginen dute 2012tik 2019ra doan aldirako. Hala eta guztiz ere, balantzean ez zen erregistratu etorkizuneko betebeharrak horietarako probisorik.

Aipatutako salbuespen hori kenduta, Udalaren 2012ko ekitaldiko Kontu Orokorrek bere alderdi nagusi guztietan behar bezain irudi doia erakusten du 2012ko abenduaren 31ko ondareari, finantza-egoerari, 2012ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioari eta data horretako ekonomia-emaizari buruz, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz.

V.2. UDALAK LEGEDIA BETETZEA.

Oro har, 2012ko ekitaldian zehar, Udalaren jarduera finantzarioa legezkotasun-printzipioari jarraituz egin da.

V.3. EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIO BATERATUA

Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2012rako hasierako aurrekontu bateratuak, 2011ko aurrekontuaren luzapena denak, 185,46 milioi euroko diru-sarrerak eta 184,43 milioi euroko gastuak biltzen zituen hasierako aurreikuspenetan. Gastuen aurrekontuetako aldaketek 47,29 milioi euro egin zuten; hasierako kredituen ehuneko 25,6, hain zuzen.

Eskubide bateratuak 225,6 milioikoak izan ziren eta gastu, bateratuak, berriz, 204,37 milioikoak. Aurrekontu-emaizta bateratu doitua 6,70 milioi eurokoa izan zen.

Ondoren, 2012ko betetze bateratuari buruzko adierazle batzuk ematen ditugu, bai eta aurreko ekitaldikoekiko alderaketa ere.

	2011	2012	2012/11 aldea (%)
Diru-sarrera arruntak	187.493.274	182.355.142	-2,74
Funtzionamendu-gastuak	167.008.071	157.269.222	-5,80
Aurrezki gordina	20.485.203	25.085.920	22,46
Finantza-zama	8.057.067	8.598.458	6,72
Aurrezki garbia	12.428.136	16.487.462	32,66
Kapitaleko diru-sarrerak	48.962.985	25.192.908	-48,55
Kapital-gastuak	52.360.358	36.462.611	-30,36
Aurrekontu-emaitza doitua	18.742.562	6.703.632	-64,23
Zorpetze-maila	4,30%	4,72%	
Zorpetzearen muga	10,93%	13,76%	
Zorpetze-ahalmena	6,63%	9,04%	
Zorra, guztira (1)	105.555.187	115.976.715	9,87
Biztanle bakoitzeko zorra	533	587	10,13

(1) Pamplona Centro Histórico, SAren zorra ere biltzen du.

2012an Udalak eta bere erakunde autonomoek aitortutako eskubide guztien ehuneko 81 diru-sarrera arruntak dira; ehuneko 11 kapitaleko diru-sarrerak dira eta ehuneko zortzi diru-sarrera finantzarioak dira.

Gastuen osarari dagokionez, ehuneko 77 funtzionamendu-gastuak dira; ehuneko 18 kapitaleko gastuak dira (kapitaleko inbertsio eta transferentziak) eta gainerako ehuneko bosta aktiboko eta pasiboko finantza-eragiketen bidezko gastuei dagokie.

Nabarmentzekoa da funtzionamendu-gastuak (langileak, ondasun arruntak eta zerbitzuak eta transferentzia arruntak) ehuneko 5,80 jaitsi direla –10 milioi euro–; horrek aukera eman du 25 milioi euroko aurrezki bat sortzeko –aurreko ekitaldiko baina ehuneko 22,5 handiagoa–.

Ikusten da inbertsio-erritmoa asko jaitsi dela: 2011n kapitaleko gastuen 52,36 milioi euro izatetik 2012an 36,46 milioi izatera pasa da.

Aitzitik, 2011tik 2012ra doan aldian, zorra ehuneko 10 handitu zen: 105,56 milioikoa izatetik 115,98 milioikoa izatera pasa da. Guztizko horretatik, 98,62 milioi Udalari dagozkie. 2012an, Udalak Europako Inbertsio Bankuarekin 16 milioi euroko mailegu bat itundu zuen, pixkanaka erabiltzekoa, inbertsioak finantzatzeko. 2012an, 12 milioi erabili zituen.

2012an, zorpetze ahalmen bateratua diru-sarrera arruntan ehuneko 9,04koa izan zen.

Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakin bateratua 5,5 milioikoa izan zen, eta honakoei zegokien:

	2011	2012
Udala	-8,4	0,3
Haur-eskolak	0,3	0,4
Gerentzia	4,5	4,8
Gastu orokorretako diruzaintza-gerakin bateratua	-3,6	5,5

Horrenbestez, 2012an, Udalak eta bere menpeko entteek ehuneko 5,80 jaitsi zituzten beren funtzionamendu-gastuak eta 16,49 milioiko aurrezki garbia sortu zuten. Diru-sarrera arruntan ehuneko 9,04 zorpetze-ahalmena zeukaten. Aitzitik, zorra eta finantza-zama igo ziren, zeren eta

kapitalek gastuak behera egiten joan diren arren, kapitaleko diru-sarrerak ere nabarmen jaitzi ziren.

Halaber, nabarmentzekoa da gastu orokorretarako diruzaintza-gerakinak nabarmen egin duela gora; izan ere, -3,6 milioi eurokoa izatetik 5,5 milioi eurokoa izatera pasa da.

Horri dagokionez, Udalaren Osoko Bilkurak 2012ko abenduaren 21ean onetsi zuen Udalaren 2011ko -8,4 milioi euroko diruzaintza-gerakina finantzatzea, mailegu baten bitartez, eta 2012ko aurrekontuko diru-sarreraren aurreikuspenak handitzea egin beharreko aurrekontu-aldaketa eginez.

- 2006tik 2012ra bitarteko aurrekontu-betetzea.

Txosten honen eranskinetan erakusten dugu zein izan den aurrekontu-betetzearen bilakaera eta zein diren 2006tik 2012ra bitarteko ekitaldietako finantza-egoera bateratuaren adierazleak.

2012ko gastu bateratuek 204,39 milioi euro egin zuten; diru-sarrek, berriz, 225,6 milioi euro. Zenbateko horiek 2006tik 2012ra bitarteko aldiko txikienak dira, salbu eta 2012ko diru-sarreraren kasuan, zeinak soilik gainditzen baitituzte 2006an sortutakoak.

Aitortutako betebeharreri dagokionez, 2006tik 2012ra guztira 618,5 milioi egiten duten kapital-gastuak (kapitaleko inbertsio eta transferentziak) exekutatu ziren. Nabarmentzekoa da 2007ko 161,7 milioiko kopurua, 2012ko 36,5 milioiko kopuruaren aldean, azken hori izan baita exekuzio txikiena izan den ekitaldia.

Transferentzia arruntek gora egin dute, 2006an 6,8 milioi izatetik 2012an 13,7 milioi izatera, eta finantza-zama 2006an 2,6 milioiko izatetik 2012an 8,6 izatera iritsi da. Aitzitik, ondasun arruntetan eta zerbitzuetan 2012an egindako gastuak -65,8 milioi- aztertutako aldiko txikienak izan dira, eta ekitaldi horretako langile-gastuek -77,8 milioi- soilik 2006an eta 2007an sortutakoak gainditzen dituzte.

Diru-sarrei dagokionez, transferentzia arruntak nabarmendu behar dira, zeren eta 2006an 74,3 milioikoak izatetik 2012an 93,2 milioikoak izatera pasa baitira. 2006tik 2012ra bitarteko aldiko kapitaleko diru-sarrerak (inbertsioen besterentzea eta kapital-transferentziak) 419,4 milioikoak izan ziren. Haien zenbatekoa dela eta, nabarmentzekoak dira 2007ko ekitaldian sortutakoak.

Aztertutako aldian, 92,4 milioi euroko zorra itundu zen.

- Aurrekontu-egonkortasuna.

Kontabilitate nazionaleko irizpideei jarraituz, eta aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren printzipioak betetzen diren aztertze aldera, honakoak dira tokiko sektore publikoa osatzen duten enteak: Udala bera, erakunde autonomoak (Hirigintzako Gerentzia eta Haur Eskolak), merkatukoak¹ ez diren udal sozietateak (Pamplona Centro Histórico, S.A., Asimec, S.A. y Animsa, S.A.) eta Gayarre Antzokia Fundazioa.

2012ko ekitaldirako ezarrita zeuden aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko helburuak bete dira.

¹ Jotzen da ente bat merkatukoa dela haren produkzioa ekonomikoki aipagarriak diren preziotan saltzen bada eta salmentek gutxienez ere produkzio-kostuen ehuneko 50 estaltzen badute.

Alde batetik, sektore publikoa osatzen duten entitateen multzoak 6,58 milioiko superabita lortu du, hurrengo taulan erakusten den bezala.

	2012ko zenbatekoa
Finantzaz besteko diru-sarrerak	234.804.539
Finantzaz besteko gastuak	224.042.285
Saldo ez-finantzariora	10.762.254
Doikuntzak:	
Diru-sarreraren diru-bilketa, 1., 2. eta 3. kapituluak	-4.427.458
Sortutako korrituak	-5.272
Europar Batasunaren diru-laguntzak	-491.667
Geroratutako ordainketa	742.000
Superabita	6.579.857

Bestalde, zor biziak 2012an sortutako diru-sarrera arrunten ehuneko 63,6 egiten du, 2013an kreditu-eragiketa berriak ituntzeko ezarritako ehuneko 110eko mugaren azpitik.

V.4. AURREKO EKITALDIETAKO GOMENDIOEN BETETZEA

Egiaztatu dugu aurreko fiskalizazioetan egindako hurrengo gomendioak bete egiten direla:

- 2011ko plantilla organikoko (onetsi den azkena baita) lanpostu-sorkuntza eta -amortizazioa izapidetu da, legez ezarritako onespenez eta publizitate-betekizunak betez.
- Animsa sozietate publikoak ematen dituen zerbitzu informatikoen gaineko udal kontrola hobetu da.
- Comiruña, SA sozietate publikoren legezketasunari buruzko kontu-ikuskaritza egin da.
- Udal alorrek diru-laguntzen plan estrategiko bat egin dute, non emandako diru-laguntzen helburuak, aurreikusitako kostuak eta finantzaketa-iturriak jaso baitira; alabaina, ez dira finkatu planaren helburuekin lotutako adierazleak.

Nabarmetzen dugu 2012ko ekitaldian Udalak zenbait neurri eta tresna onetsi dituela kontratu- eta administrazio-kudeaketan efizientzia eta gardentasuna areagotzeko. Hona horietako batzuk:

- Zerbitzua emateko kontratuak berraztertzea. Horrek gastua arrazionalizatzea ekarri du.
- Alkatek kontratazio administratiboari buruz emandako jarraibideak.
- Espediente elektronikoaren ezarpena.

Lehentasunezkoztat jotzen dugu 2011ko ekitaldiko fiskalizazio txostenean emandako gomendio hauek betetzea:

- *Balorazio-ponentzia berraztertzea, besteak beste, azken hirigintza-garapenak egin diren aldeetako lur-eremuen landa-lur gisako kalifikazioa aldatzeko, eta lurraren balio-gehikuntzaren gaineko zerga eta lurraren kontribuzioa ordainaraztea lursailen hiri-izaerari dagozkion balioen arabera.*
- *Barne kontrola areagotzea, kudeaketa ekonomikoa hobetzeko beharrezkoa eta ezinbestekoa den tresna baten gisara, eta hura ezartzea Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legean ezarritako hedadurarekin, erabateko fiskalizazioa eginez aurrez fiskalizatu diren eta barne-kontrola pasa duten gastuen lagin bati buruz, Udalaren diru-sarrerari dagokienez, besteak beste.*

VI. FINANTZA EGOERA BATERATUAK*2012ko ekitaldiko aurrekontu bateratuaren likidazioaren egoera-orria
(Udala eta erakunde autonomoak)***Gastu-aurrekontuaren betetzea. Sailkapen ekonomikoa**

Kontzeptua	Kapitulua	Hasierako kreditua	Aldaketak	Behin betiko kreditua	Aitortutako betebeharrak	Ordainketak	Ordaintzeke dagoena	Betetakoa (%)	Aitortutako guztiaren gaineko ehunekoa
Langile-gastuak	1	82.716.454	-1.646.121	81.070.333	77.846.044	77.196.448	649.596	96,0	38,1
Zerbitzuak eta ondasun arruntak erostea	2	67.795.469	1.549.004	69.344.473	65.759.907	50.737.994	15.021.913	94,8	32,2
Finantza-gastuak	3	4.785.000	-655.500	4.129.500	3.088.514	3.035.403	53.111	74,8	1,5
Transferentzia arruntak	4	13.694.665	615.521	14.310.186	13.663.271	9.503.156	4.160.115	95,5	6,7
Inbertsio errealak	6	6.330.051	40.182.240	46.512.291	28.385.331	21.807.344	6.577.987	61,0	13,9
Kapital-transferentziak	7	1.196.602	7.248.378	8.444.980	8.077.281	6.266.135	1.811.146	95,6	3,9
Finantza-aktiboak	8	2.387.200	0	2.387.200	2.045.205	2.035.205	10.000	85,7	1,0
Finantza-pasiboak	9	5.525.000	0	5.525.000	5.509.944	5.509.944	0	99,7	2,7
Gastuak, guztira		184.430.441	47.293.522	231.723.963	204.375.497	176.091.629	28.283.868	88,2	100

Diru-sarrera-aurrekontuaren betetzea. Sailkapen ekonomikoa

Kontzeptua	Kapitulua	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubideak	Kobrantsak	Kobranteke dagoena	Betetakoa (%)	Aitortutako guztiaren gaineko ehunekoa
Zuzeneko zergak	1	49.969.440	0	49.969.440	48.072.802	45.049.174	3.023.628	96,2	21,3
Zeharkako zergak	2	7.000.000	0	7.000.000	9.814.864	5.904.954	3.909.910	140,2	4,3
Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	3	28.453.562	0	28.453.562	28.302.708	23.336.374	4.966.334	99,5	12,6
Transferentzia arruntak	4	91.386.117	-300.000	91.086.117	93.235.078	90.113.174	3.121.904	102,4	41,3
Ondare bidezko diru-sarrerak	5	2.747.000	0	2.747.000	2.929.690	2.353.667	576.023	106,7	1,3
Inbertsio errealen besterentzea	6	0	0	0	1.057.225	1.057.225	0		0,5
Kapital-transferentziak	7	3.519.495	17.308.800	20.828.295	24.135.683	18.975.079	5.160.604	115,9	10,7
Finantza-aktiboak	8	2.387.200	12.701.560	15.088.760	2.052.098	1.543.855	508.243	13,6	0,9
Finantza-pasiboak	9	0	24.945.260	24.945.260	16.000.000	16.000.000	0	64,1	7,1
Diru-sarrerak guztira		185.462.814	54.655.620	240.118.434	225.600.148	204.333.502	21.266.646	93,9	100

2012ko ekitaldiko aurrekontu-emaiza bateratua (Udala eta erakunde autonomoak)

Kontzeptua	2011ko ekitaldia	2012ko ekitaldia
Aitortutako eskubide garbiak	252.903.554	225.600.148
Aitortutako betebeharrak garbiak	-229.513.065	-204.375.497
Aurrekontu-emaiza	23.390.489	21.224.651
Doikuntzak		
Finantzaketaren desbideraketa positiboa	-7.430.683	-18.583.826
Finantzaketaren desbideraketa negatiboa	2.782.755	4.062.807
Diruzaintzako gerakinaz finantzatutako gastuak	0	0
Aurrekontu-emaiza doituak	18.742.562	6.703.632

Diruzaintza-gerakinaren egoera-orri bateratua 2012ko abenduaren 31n
(Udala eta erakunde autonomoak)

Kontzeptua	2011ko ekitaldia	2012ko ekitaldia	Aldaketaren ehunekoa
(+) Kobratzeke dauden eskubideak	60.862.320	54.187.823	-10,97
(+) Aurrekontuko diru-sarrerak: aurtengo ekitaldia	22.412.508	21.134.593	
(+) Aurrekontuko diru-sarrerak: itxitako ekitaldiak	45.033.521	43.473.958	
(+) Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	2.213.133	930.816	
(+) Ordaintzen itzulketak	20.119	3.021	
(-) Nekez kobratzeko eskubideak	-8.664.306	-11.293.239	
(-) Aplikatzeke dauden diru-sarrerak	-152.655	-61.326	
(-) Ordaintzeke dauden obligazioak	-68.875.818	-57.074.829	-17,13
(-) Gastuen aurrekontua: aurtengo ekitaldia	-31.842.875	-28.283.868	
(-) Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldiak	-30.064.030	-22.358.443	
(-) Aurrekontuz kanpoko gastuak	-6.742.032	-6.327.931	
(-) Egiteke dauden itzulketak	-235.394	-111.007	
(+) Aplikatzeke dauden ordaintketak	8.513	6.420	
(+) Diruzaintzako funts likidoak	30.119.774	45.526.904	51,15
(+) Finantzaketa-desbideratze metatu negatiboak	25.634.282	25.314.353	-1,25
= Diruzaintzako gerakina, guztira	47.740.557	67.954.251	42,34
Diruzaintza-gerakina, finantzaketa atxikia duten gastuak direla-eta	24.733.944	30.854.533	24,75
Diruzaintza-gerakina, baliabide atxikiak direla-eta	26.645.814	31.620.444	18,67
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	-3.639.201	5.479.274	

2012ko abenduaren 31ko egoeraren balantze bateratua.
(Udala, erakunde autonomoak eta Comiruña, SA, Pamplona Centro Histórico, SA eta Asistencia Municipal en Casa, SA udal enpresak)

Deskribapena	2012ko itxierako zenbatekoa	Deskribapena	2012ko itxierako zenbatekoa
A Ibilgetua	1.166.513.551	A Funts berekiak	1.118.332.668
1 Ibilgetu materiala	526.824.057	1 Ondarea eta erreserbak	705.830.308
2 Ibilgetu ez-materiala	22.383.205	2 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)	14.371.661
3 Erabilera orokorreko azpiegiturak eta ondasunak	608.290.782	3 Kapitaleko diru-laguntzak	398.130.699
4 Herri-ondasunak	0	B Arrisku eta gastuetarako hornidurak	0
5 Finantza-ibilgetua	9.015.508	4 Hornidurak	0
B Zenbait ekitalditan banatu beharreko gastuak	0	C Epe luzeko hartzekodunak	115.992.843
6 Kitatu beharreko gastuak	0	4 Jesapenak, maileguak eta jasotako fidantzak eta gordailuak	115.992.843
C Zirkulatuzailea	114.209.513	Epe laburreko hartzekodunak	46.397.554
7 Izakinak	11.897.655	5 Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuz kanpokoak	46.336.296
8 Zordunak	52.885.527	6 Aplikatzeke dauden kontusailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	61.258
9 Finantza-kontuak	49.412.725		
10 Finantzaketaren egoera iragankorrak, aldizkatzeak eragindako doitzeak. Aplikatzeke.	13.606		
11 Aplikatzeke dagoen emaitza (ekitaldiko galera)	0		
Aktiboa, guztira	1.280.723.065	Pasiboa, guztira	1.280.723.065

VII. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Atal honetan deskribatzen dira erregulartasunari buruz eginiko fiskalizazioaren harira lortutako ondorio nagusiak, bai eta Udalaren kudeaketa ekonomikoa hobetzeko gomendioak ere.

VII.1. AURREKONTUA ETA KONTU OROKORRA

2012ko ekitaldirako ez zen aurrekonturik onetsi; izan ere, 2011ko ekitaldiko aurrekontu orokorra luzatu zen. Diru-sarrera eta gastu bateratuen aurreikuspenak 185.462.814 eta 184.430.441 eurokoak dira, hurrenez hurren.

Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2012ko aurrekontuen likidazioa 2012ko uztailaren 22an onetsi zen, legediak ezarritako epea –martxoaren lehena– baino bost hilabete beranduago.

2012ko ekitaldiko Kontu Orokorra Udalaren Osoko Bilkurak onetsi zuen 2013ko urriaren 18an. Ez dago jasota 2012ko ekitaldiko tasa eta prezio publikoekin finantzatutako zerbitzuen kostuari buruzko oroitidazkirik.

2012ko Kontuei dagokienez, Haur Eskolak eta Hirigintzako Gerentzia erakunde autonomoen kontuak; Gayarre Antzokiaren eta Erruki Etxearen kontuak, eta Udalak partaidetzaren gehiengoa duen enpresa publikoen kontuak -Comiruña, S.A., Pamplona Centro Histórico, S.A., Asimec, S.A., Animsa eta Mercairuña, S.A.- kanpoko profesionalek ikuskatu dituzte, eta kasu guztietan aldeko iritzia eman dute.

Gainera, erakunde autonomoetan, udal sozietatean eta Gayarre Antzokia Fundazioan, jarduera ekonomiko finantzarioaren legekotasuna betetzeari buruzko kontu-ikuskaritza bat egin zen, eta kasu guztietan aldeko iritzia eman zen.

Gure aholkuak:

- *Aurrekontuaren likidazio-espeditzea eta Kontu Orokorra legez ezarritako epean onestea.*
- *Kontu Orokorrean sartzea ixten den ekitaldiko tasa eta prezio publikoekin finantzatutako zerbitzuen kostuei buruzko oroitidazkia.*

VII.2. UDALEKO LANGILE-GASTUAK

Langile-gastuak 71,97 milioikoak izan ziren 2012an. Ekitaldi horretan aitortutako betebeharrak guztien ehuneko 38 egiten dute. Haien betetze-mailak behin betiko kredituen ehuneko 96 egin zuen. 2011n baino ehuneko bost gutxiago izan ziren, funtsean udal funtzionarioen ordainsariak behera egin zutelako. Horri dagokionez, Udalak ez zuen 2012ko abenduko aparteko soldata ordaindu. 2.940.270 euro egiten zuela zenbatetsi da.

- Udalak ez zituen onetsi 2012ko abenduaren 31ko ez plantilla organikoa, ez langileen zerrenda, Nafarroako Administrazio Publikoaren Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bateratua onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru-dekretuak ezarritakoaz bestera.

2011n zeuden lanpostuak, ekitaldi horretarako onetsitako plantillaren arabera, 1.424 ziren. Horietatik, ehuneko 32 lanpostu hutsak ziren. Funtzionarioen 1.344 lanpostuetatik, 493 udaltzaingoari zegozkion.

2013an 2011ko plantilla organikoa aldatu zen: bederatzi lanpostu amortizatu ziren eta 13 lanpostu sortu ziren.

2012an ez zen enplegu eskaintza publikorik izan. Urte horretan, deialdi bat onetsi zen, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren bitartez, musika irakasleak hartzeko. Halaber, hautapen probetarako deialdi bat egin zen honako lanpostuetan aldi baterako kontratazioarako izangaien zerrendak egiteko: arte plastikoetako eta ondareko teknikari bat; bi musika irakasle; gizarteratzearen arloko teknikari bat eta gizarte langile bat.

- Udaltzatuko 27 kideen ordainsariak 840.848 euro egin zuten 2012an. Honakoak dira, hain zuzen:

a) Alkatea: 68.328 euro

b) Arduraldi eskusiboa duten hamar zinegotzi: 437.269 euro.

c) Arduraldi partziala duten lau zinegotzi: 107.978 euro.

d) Dieten sistemari atxikitako hamabi zinegotzi: 227.273 euro.

Udalak 186.196 euroko diru-laguntza bat jaso zuen Foru Administrazioetik hautetsien ordainsariak finantzatzeko.

1993tik, zinegotzien ordainsarien ehuneko 30 –2008tik, ehuneko 25– pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga ordaintzetik salbuesita zeuden, gastuetarako ordainsaritzat jotzen baitziren. Zenbait Zerga Aldatu eta beste Tributu-neurri batzuk ezartzen dituen abenduaren 28ko 20/2011 Foru Legeak salbuespen hori kendu zuen, 2011ko urtarrilaren 1etik aurrerako atzera eraginez. 2012an, Udalak arau horretan ezarritakoa bete zuen.

Erregelamendu organikoak ezartzen du arduraldi eskusiboa, ez partziala ez duten zinegotziek dietak jaso ahal dituztela udal organo kolegiatuetako bilkuretara joateagatik, zinegotzi gisa parte hartutako ekitaldietara joateagatik eta lan nahiz kudeaketak egiteagatik, eta kasuko zinegotzia Udalaren ordezkari gisa joaten den udalaz besteko organoetako bilera edo bilkuretara joateagatik.

2012ko zenbatekoa dieta bakoitzeko 120,07 eurokoa da. Hilero, aurreratutako ordainketak egin ahalko dira, 13 dietako gehienekoarekin. Gainera, dieten sistemari atxikitako udal taldeetako eledunek dieta bakoitzeko 279 euro kobratuko dituzte, urtean 20 dietako gehienekoarekin: arduraldi eskusiboa daukaten eledunek kobratzen dutena baino 1.116 euro gutxiago dira.

Zinegotziak udal organoetako eta talde politikoetako bilkuretara eta bestelako ekitaldietara egiazki joaten direla justifikatzen da zinegotzi bakoitzak seihileko bakoitzean aurkezten duen adierazpen batekin, non soilik aipatzen baita zenbat ekitalditan parte hartu duen, Udalak onetsitako agiriaren arabera. Zinegotzien adierazpenek udal taldeko arduradunaren adostasuna daukate. 2013an, Udalak agiri bat onetsi du udal taldeen bileretara joateari buruzko justifikazioa eta kontrola hobetzeko.

- Aparteko lanorduak.

2012an, 551 langilek 29.045 aparteko ordu egin zituzten. Horrek 479.021 euroko guztizko gastua ekarri zuen.

Aparteko orduen guztizko kopuruaren ehuneko 78 Udaltzaingoarenak dira.

1992ko abenduko alkatetza-dekretu batez, langile bakoitzeko aparteko lanorduen gehieneko muga ezarri zen, 50 lanordukoa, behar bezala justifikatutako salbuespenetan izan ezik.

2012an, 146 dira urtean 50 lanordu baino gehiago egin dituztenak, eta horietatik aparteko lanorduen ehuneko 60 egin dituzte guztira.

Honakoa da aparteko lanorduen bilakaera azken bi ekitaldietan:

Deskribapena	2011		2012	
	Kopurua	Orduak	Kopurua	Orduak
Lanegunetako Aparteko Orduak	245.672	17.828	161.447	11.111
Jaiegunetako Aparteko Orduak	81.162	4.661	56.210	3.255
Lanegunetako Aparteko Orduak Hauteskundeetan	11.137			
Jaiegunetako Aparteko Orduak Hauteskundeetan	57.389			
Sanferminetako lanegunetako aparteko orduak	265	80	0	
Sanferminetako jaiegunetako aparteko orduak	303.778	13.286	258.058	14.679
Jaiegunetako aparteko lanorduak. Lan istripua	4.208		3.306	
	703.611	35.855	479.021	29.045

Aparteko orduen gastua 2012an ehuneko 32 txikiagoa izan zen aurreko ekitaldian sortutakoa baino (2011ko hauteskundeengatik aparteko orduak kenduz gero, jaitsiera ehuneko 24,7koa da).

Arlo bakoitzeko zuzendariaren baimen orokor bat ageri da, sortutako aparteko lanorduak ordaintzeko, bai eta enpleguaren nagusiaren onespina ere, langileak hilabete bakoitzean egindako lanorduei buruzkoa. Orokorrean, ez dago jasota enplegu bakoitzari alde aurretik baimena eman izatea aparteko orduak egiteko.

- Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloan presako zenbait neurri hartzei buruzko ekainaren 21eko 13/2012 Foru Legeak 2012rako kendu zuen funtzionarioei diru-sarrerarik ez duten ezkontide edo bikote egonkorrarengatik ematen zitzaizkien familia laguntza. Udalaren negoziazio kolektiboaren mahaiak erabaki zuen, konpentsazio gisa, lan osagarri bat ezartzea, E mailako soldataren ehuneko 3,5ekoa, diru-sarrerarik jasotzen ez duen ezkontide nahiz bikote egonkorra daukaten funtzionario guztientzat. Osagarri hori ez dago jasota administrazio publikoen zerbitzuko langileei aplikatzekoa zaien legedian, eta 2012ko uztailaren 1etik abenduaren 31ra sortu zen. 19.169 euroko gastua ekarri zuen.

Gai horri dagokionez, Udaleko Ogasun Alorraren zuzendariak jakinarazi digu Giza Baliabideen Zuzendaritzak datozen egunetan espediente bat abiatu behar duela Gobernu Batzarrak onetsi dezan akordio hori ofizioz berraztertzeko prozedura, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean ezarritako moduan.

- Udaltzaingoaren ordainsariak.

Udaltzainek jasotzen dituzten ordainsarien lagin bat fiskalizatuta, honako ondorio nagusiak atera ditugu:

Betetzen duten lanpostuari eta espedientearen jasotakoaren arabera dauzkaten inguruabar administratibo eta familiarrei dagozkien ordainsariak bat datoz arau indardunetan ezarritakoarekin, eta egindako atxikipenak zuzenak dira. Oro har, langile-espedienteetan, ez dago jasota prestakuntza aldiko zerbitzuei buruzko aitorpenik.

Kontzeptu aldagarriak (aparteko orduak, gaueko orduak, jaiegunengatiko konpentsazioa eta guardia lokalizatuak) Herritarren Segurutasunaren Alorreko arduradunek onetsitako egiaztagirien arabera ordaintzen dira.

- Ezintasun iraunkor partziala.

2012an bi funtzionariori ezintasun iraunkor partzialarengatik aitortutako kalte-ordainak – 150.530 euro– aztertu ditugu.

Kalte-ordainen zenbatekoa zuzen kalkulatu zen. Kalte-ordain horietako bati ez zitzaion ehuneko 50eko kenkaria aplikatu pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga dela eta; kenkari hori zerga horretako araudian baliaezintasunetik heldutako prestazioetarako aurreikusita dago.

Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboaren arabide iragankorrari buruzko martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legean ezarritakoaz bestera, Balorazio Epaimahaiaren mediku-irizpenak ez du adierazten zein den antzemandako ezintasun gradua, ez eta hura eragin duen arrazoia ere.

Gure aholkuak:

- *Aparteko lanorduak baimentzea haiek egin baino lehen; eta lanordu horiek urteko 50eko muga gainditzen badute kontrolatzea salbuespeneko arrazoiengatik, arrazoi bereziengatik edo presako arrazoiengatik egin direla, eta arrazoi horiek behar bezala justifikatu direla. Aparteko orduak ordaintzea hitzarmenean ezarritako prezioaren arabera.*

- *Behar diren neurriak ezartzea funtzionarioaren ezkontideak nahiz bikote egonkorrek diru-sarrerarik jasotzen ez duen kasuetarako ezarritako lansari-osagarria dela-eta bidegabeki egindako ordainketa erregularizatzeko.*

- *Berriz ere gomendatzen dugu aurreko ekitaldietako "Ogasun Publikoa, PFEZaren hartzekodun" eta "Funtzionarioen arreta" kontuetako 140.977 euroko eta 56.575 euroko saldoak erregularizatzeko.*

VII.3. UDALAREN ONDASUN ARRUNTAK ETA ZERBITZUAK EROSTEA

Udalaren gastu arruntetako eta zerbitzuetako 2012ko gastuak 62,69 milioioiak izan ziren – 2011n baino ehuneko bederatzi gutxiago–. 2012an aitortutako betebeharrak guztien ehuneko 34 egiten dute. Haien betetze-maila behin betiko kredituen ehuneko 95ekoa izan zen.

Honakoak dira gastu horiek osatzen dituzten kontzeptu ekonomikoak:

Kontzeptua	Aitortutako betebeharrak (2012)	Aitortutako betebeharrak (2011)	Aldea (%),	Kapituluaren gaineko ehunekoa
Osasungarritasun publikoaren arloko kontratuak	8.821.354	9.949.123	-11	14
MUGAren kudeaketa-kontratua	6.099.317	5.703.000	7	10
Jarduera sozialen kudeaketa	5.963.573	6.214.526	-4	10
Erabilera publikoko ondasunen mantentzea eta konponketa	4.706.124	6.387.581	-26	8
Kultur jardueren kudeaketa	4.055.911	4.417.975	-8	6
Azterlanak eta lan teknikoak	3.789.380	4.326.817	-12	6
Garbiketa-kontratuak	3.604.493	4.331.378	-17	6
Argiteria publikoaren kontsumoa	2.796.305	2.421.968	15	4

2012an esleitutako gastu eta kontratuen honako lagina fiskalizatu dugu:

- Gastuak.

Kontzeptua	Aitortutako betebeharrak (2012)
Bide publikoa garbitzea	7.533.123
Bide publikoko aparkatze arautua (MUGA)	6.099.317
Kultur jardueren kudeaketa	3.785.842
Berdeguneak mantentzea	2.925.216
Eraikinetako energia elektrikoa	1.866.081
Ibilgailuak eramatea	1.151.978
Publizitatea eta propaganda	197.500
Musika Eskolaren mantentzea	39.961

- 2012an esleitutako kontratuak.

Kontratua	Helburua	Prozedura	Irizpidea	Zenbat lizitatuak	Lizitazio-prezioa, BEZ gabe	Esleipen-prezioa, BEZ gabe
Laguntza	Ibilgailuak eramatea	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik goiti	Eskaintzarik onena	1	996.610	966.712
Zerbitzu-emakidak	Komun publikoen kudeaketa	Irekia, Europar Batasuneko publikitatearekin	Eskaintzarik onena	6	955.179	841.000
Zerbitzu-emakidak	Publizitatearen kudeaketa	Irekia, Europar Batasuneko publikitatearekin	Eskaintzarik onena	4	699.153	699.153 (gehienekoa)

2011n, beheranzko aldaketa bat onetsi zen, orduak eta zerbitzuak gutxituz honakoetan, besteak beste: berdeguneetako mantentze-kontratuak, ibilgailuak bide publikotik erretiratzea eta bide publikoaren garbiketa. 2012ko gastua 2011n kontratatutakoa baino txikiagoa izan zen: gutxi gorabehera ehuneko 19 txikiagoa lehenengo bi kontratuetan eta ehuneko 15 txikiagoa hirugarrenean. Udalak, kontratu-aldaketa horiek justifikatzeko arrazoi gisa, aurrekontu-egonkortasunaren helburua erabili zuen.

Orokorrean, kontratazio-espedituen izapidetzea, haien esleipena eta haien betetzea kontratuen arloan aplikatzeko den legediaren arabera egin ziren.

Espainiako Txirrindularien Itzuliaren publizitateak 194.000 euroko gastua ekarri zuen. Horri dagokionez, Udalak babesletza-kontratu bat sinatu zuen, Kontratuei buruzko Foru Legearen arabera prozedura negoziatuaren bidez kirol-proba horren eskubideak dauzkan enpresa bakarrari esleitua.

Egiaztatu dugu ezen, orokorrean, prozedurak ezarri eta aplikatu direla kontrolatze aldera fiskalizatutako zerbitzuak baldintza-orri arautzaileetan ezarritako estipulazioen arabera betetzen direla.

Aztertutako gastuak justifikatuta, onetsita, kontu-hartzailtzak baimenduta (aurreko kontu-hartzailtza mugatua) eta zuzen kontabilizatuta daude.

Ondoren deskribatuko ditugu egindako fiskalizazioan aurkitu diren akats nagusiak.

- Berdeguneen mantentzea.

Berdeguneen mantentze-zerbitzua 2008tik bi enpresarekin dago kontratatuta. Kontratazioa hasi zenetik, bi enpresa horietan berdeguneak mantentzen lan egin duten pertsonen kopurua eskaintzan adierazitakoa baino txikiagoa izan da, kontratu-baldintzak arautu zituzten orrietan ezarritakoaren aurka. Akats hori, zeina lorategien zerbitzuko ikuskatzaileek egiaztatu baitute, agerian jarri zen Udalaren txosten juridiko eta teknikoetan, eta zerbitzua esleituta daukaten enpresek ere berriaz onartu zuten.

Hala eta guztiz ere, kontratatutako guztizko prezioa fakturatu eta ordaindu zen, nahiz eta laneko exekuzio-oharretan, Lorategietako Udal Zerbitzuko Ikuskapen Zerbitzuak onetsitakoetan, egin gabeko lanaldiak aipatzen ziren, esleipen-hartzaileen adostasunarekin. Langile gutxiago jartzeak berarekin dakar lanaldi gutxiago egitea, eta horrek enpresa esleipen-hartzaileen fakturazioan deskontatzen ez den eta, gainera, metatzen joan den defizita sortu du.

Bestalde, udal txosten batzuetatik ondorioztatzen denez, 2009an berdegune kopurua handitu zen eta ureztatze-beharrak ere handitu ziren; alabaina, ez zen kasuko kontratu-aldaketa ez izapidetu, ez onetsi. Gastu handiago hori ez zitzaien guztiz ordaindu enpresa esleipen-hartzaileei eta 2012an konpentsatu da kontratatutako aldi osoan egin ez diren lanaldiek sortutako defizitarekin.

Hartara, lau urteren buruan, kontratuaren amaieran, esleipena duten bi enpresekiko likidazioa egin da, egin ez zituzten lanaldiak eta berdegune kopurua handitu ondoren ordaindu ez diren gastuak aintzat hartuta, eta kontuan izanda berdeguneek 2008tik 2012ra bitarte izan dituzten mantentze beharrak. Hurrengo taulan eman dugu kontzeptu horien balioespena:

	2009rako esleipen prezioa	Urteko kontratuaren luzapena	Enpresari ordaindu ez zaizkion luzapenak (2009-2012)	Egin gabeko lanaldiak (2008- 2012)
1. enpresa	1.991.177	176.608	404.828	-357.448
2. enpresa	2.045.572	98.618	246.982	-858.920

Enpresekiko kontratua 2012ko apirilaren 30ean amaitu zen, eta 2012ko azaroaren 30era arte luzatu zen, esleipen berriaren atzerapena zela eta. Luzapena bera atzerapenez izapidetu zen.

Bestalde, egiaztatu dugu 2012an berdeguneen mantentze-kontratuan sartuta ez zeuden lan batzuk, 56.642 euro egiten zutenak, zuzenean esleitu zitzaizkiela zerbitzu horretarako kontratatuta zeuden enpresei. Gastua bost fakturatan zatitu zen.

2012ko azaroaren 7an, lorategien eta parkeen mantentzea bi enpresari esleitu zitzaizen, 8.346.434 euroko prezioan –lizitazio prezioa baino ehuneko 12,24 merkeago–, lau urterako, gehienez ere.

- Bide publikoko aparkatze arautua (MUGA): 2012an, 169.234 euroko gastuak kontabilizatu ziren aurreko ekitaldiari zegozkionak.

- Bide publikoaren garbiketa: 2012an, ekitaldi horretan sortutako 120.000 euro, gutxienez ere, ez ziren kontabilizatu, behar adina kreditu ez zegoelako.

- Udal eraikinetarako energia zerbitzuak eta kontserbazio- eta mantentze-zerbitzuak: kontratu hori 2011n esleitu zen, urteko 3.330.424 euroko prezioan, BEZa barne. Kontratua arautzen duten orrietan 2012ko urtarrilaren lehena ezarri zen prezioak berraztertze data gisa, baina 2013ko ekainean onetsi zen berraztertze hori. Hala eta guztiz ere, 2012an kontratatutako prestazioei aplikatutako prezioek kontuan izan zituzten prezioen berrikuspenari dagozkion igoerak eta BEZaren ehuneko 18tik 21erako igoera, 2012ko irailaren lehenetik aurrera aplikatzekoa, betiere erabilgarri dagoen kredituaren mugaraino. Horrek berarekin ekarri zuen esleipen-hartzaileak ekitaldi horretan sortutako gastu gutzia ez fakturatzea.

Kontratu horretatik heldutako gastuak kontusail askotan kontabilizatzen dira (60 inguru), zeren eta zerbitzu eta alor desberdinetakoak baitira. Aurrekontuan krediturik ez izateak berarekin ekarri du kontusail bati egozte besterik kontusail batean erregistratu beharko liritekeen zenbait gastu.

Kontratu horretan jasotako prestazioetako bat Musika Eskolaren mantentze-zerbitzua da. Musika Eskolako kontserbazio lanengatik eta materialengatik kontabilizatutako gastua 16.361 eurokoa da 2012an. Kontzeptu horiengatik egiazki exekutatu den eta hurrengo ekitaldian likidatzen den gastuaren aurrerakin bat da. Kontratuaren baldintza-orri arautzaileek ezartzen dute fakturazioa jada eginda dauden lanengatik eginen dela.

- Ordainketak: oro har, kontratatutako gastuak 30 egun baino gehiagoko epean ordaintzen dira, batez beste. Kontratuei buruzko Foru Legeak ezartzen du, eta halaxe dago jasota berraztertutako kontratuetak baldintza ekonomikoen orrietan, ezen kontratuaren prezioa faktura erregistroan jaso eta 30 egun naturaleko epean ordainduko dela, eta kontratistak eskubidea izanen duela Administrazioari egoztekoa zaion ordainketan gertatutako goratzeagatik jasanarazitako kobrantza-kostuen interes eta kalte-ordainak jasotzeko.

Gure aholkuak:

- *Kontratuak kudeatzea eta kontratatutako prestazioak ordaintzea baldintza-orri arautzaileetan agindutakoaren arabera.*

- *Kontratuaren kasuko aldaketa izapidetu eta onestea, baldin eta kontratuan bildutako unitateen kopurua handitzen edo gutxitzen bada.*

- *Gastuak sortzen diren ekitaldian kontabilizatzea.*

- *Aurrekontuan jasotzea egindako gastuen izaera ekonomiko eta funtzionala egoki islatzeko egokiak diren kontusailak.*

- *Hartzekodunei ordaintzeko kudeaketa hobetzea, ordainketak legez ezarritako epean egiteko.*

VII.4. UDALAREN INBERTSIOAK

2012ko udal inbertsioak 9,53 milioi eurokoak izan ziren, 2011n egindakoak baino ehuneko 65 gutxiago. Ekitaldiko gastu guztien ehuneko bost egiten dute. Haien betetze-mailak behin betiko kredituen ehuneko 82 egin zuen.

Nabarmentzekoa da Udalaren inbertsioek behera egin dutela 2012ko ekitaldian, aurreko urteetan egindakoekin alderatuz gero: 9,53 milioikoak izan dira; 2011n, aldiz, 26,85 milioikoak izan ziren, 2010ean 54,55 milioikoak eta 2009an 70 milioikoak.

Honako inbertsioak fiskalizatu ditugu –2012an egindako inbertsio guztien ehuneko 27 egiten dute–:

Kontzeptua	Aitortutako betebeharrak (2012)
San Frantzisko Liburutegia	889.307
Tafalla kaleko urbanizazioa eta sareak	752.883
Jarauta kaleko obrak	258.008
Etxabakoitzen igogailuak jartzea	216.780
Labriteko baluarte eta Magdalenako frontea lehengoratzea	195.766
Espetxea eraistea eta orubea egokitzea	149.933
Sanferminetako zentro tematikoa.	145.114
Aztertutako inbertsioak, guztira	2.607.791

Aurreko inbertsioetatik, honakoak esleitu ziren 2012ko ekitaldian:

Kontzeptua	Prozedura	Zenbat lizitatzailerik	Lizitazio-prezioa, BEZ gabe	Esleipeneko prezioa	Esleipeneko baja (%)
San Frantzisko Liburutegia	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik beheiti	25	1.100.839	737.562	33
Etxabakoizko igogailuak	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik beheiti	8	787.902	685.546	13
Labriteko baluarte eta Magdalenako frontea	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik beheiti	2 (1 ez-onartua)	1.719.113	1.512.820	12
Espetxea eraistea	Negoziatua, Europar Batasunean publizitaterik egin gabea	3 (9 eskatu ziren)	123.967	86.860	29,9

Oro har, kontratazio espedientearen izapidetzeak, obrak egiteko esleipenak eta exekuzioak kontratu-legedia bete dute, eta gastuak onetsita, kontu-hartzaileak baimenduta (aurreko kontu-hartzaile mugatua), justifikatuta eta zuzen kontabilizatuta daude.

Aztertutako lagineko gastuak, oro har, 60 egunetik gorako epean ordaindu dira.

Nabarmentzekoa da obrak eskaintza ekonomiko onenari eta balorazio tekniko onena lortu zuenari esleitu zitzaizkiola (liburutegiaren kasuan, bigarren balorazio tekniko onena zeukanari).

- Sanferminetako zentroa.

Sanferminetako zentro tematikoaren guztizko kostua, 2012ko abenduaren 31n, 3.714.390 eurokoa zen, eta honako kontzeptuei zegokien:

Obra	Kontratua	2012-12-31n aitortutako betebeharra	Bete gabea
Proiektuak eta obra-zuzendaritza	1.624.722	1.385.836	238.886
Edukiak	6.560.241	2.328.554	4.231.687
Guztira	8.184.963	3.714.390	4.470.573

2012ko irailaren 18an, Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki zuen edukien kontratua amaiaraztea –2011ko abenduaren 31tik etenda zegoen, organo horrek erabakita–.

2012an, Udalak 145.114 euro ordaindu zituen 2005etik 2011ra bitarteko laguntza teknikoarengatik. 2013an, Udalak 227.654 euroko kalte-ordaina ordaindu zuen lortu gabeko irabaziengatik, hain zuzen ere laguntza kontratuaren eta exekutatzeko gelditutako edukiaren ehuneko seiari dagokiona.

2012an, Udalak ikus-entzunezko materiala finantzatzeko 579.750 euroko diru-laguntza jaso zuen Foru Administrazioetik.

Horrenbestez, Udalak, gaur arte, 6,37 milioi euro gastatu ditu guztira (horren barne dela suhiltzaileen parke zaharra eraisteko eta berria eraikitzeko 2,42 milioiko kopurua) amaitutako kontratu batean. Nafarroako Gobernuak 4,06 milioi finantzatu zituen.

• Tafalla kaleko urbanizazioa eta sareak. Obraren exekuzioa esleitutakoa baino ehuneko 11,32 merkeagoa izan zen. 2012an, Udalak 142.291 euro ordaindu zizkion obraren esleipen-hartzaileari obretako hondakinak kudeatzearen truke, Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean eraikuntza eta eraispenetako hondakinen sorrera eta kudeaketa arautzen dituen martxoaren 28ko 23/2011 Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera. Gastu horren oinarria udal arkitektoaren eta

aparejadorearen txosten bat da, hondakinen bolumenak merkatu-prezioaren arabera duen balioespen ekonomikoari buruzkoa.

- San Frantzisko Liburutegia. Proiektuak bi aldaketa izan zituen, zeinek, hasiera batean, ez baitzuten ez gastu handiagoa, ez exekuzio epe luzeagoa ekarriko. Amaierako ziurtagirian, egindako obra unitate berriek 58.228 euroko gastua ekarri zuten. Gastu hori beste kontusail batzuetan izandako betetze txikiagoekin konpentsatuta, gastu garbia 24.984 eurokoa izan zen. Bi kontratu-aldaketa horiek direla-eta ez zen aurrez fiskalizaziorik egin.

Obra lizitazio prezioa baino ehuneko 33 merkeago esleitu zen. Udalak esleipen-hartzaileari exijitu zion, kontratu-araudiak ezartzen duen moduan, ustez ausartegia zen eskaintzaren bideragarritasun tekniko eta ekonomikoa justifikatzeko.

Gure aholkuak:

- *Inbertsio plan bat egitea, non aztertuko baita inbertsioak beharrezkoak diren, bideragarriak diren, produktiboak diren edo ekonomikoki eta sozialki errentagarriak diren.*
- *Obra ziurtagirien ordainketaren kudeaketa hobetzea, haiek legez ezarritako epean ordaintzeko.*
- *Kontratu-aldaketak fiskalizatzea, eduki ekonomikoa duten ekintzak diren neurrian.*

VII.5. UDALAREN TRANSFERENTZIENGATIKO GASTUAK

2012an, Udalak 32,52 milioi euro egiten duten transferentziak eta diru-laguntzak eman zituen. Honakoak izan ziren onuradunak:

Entea	Arruntak		Kapitalekoak	
	Aitortutako betebeharra	Aldea (%) 2012/11	Aitortutako betebeharra	Aldea (%) 2012/11
Erakunde autonomoak	6.385.614	-6	4.394.957	17
Udal sozietateak	4.012.838	-4	3.149.926	147
Foru Komunitatea	213.603	-27	0	
Mankomunitatea	2.540.320	562	0	
Enpresa pribatuak	78.488	-44	344.589	-49
Familiak eta irabazi asmorik gabeko erakundeak	6.818.022	-14	4.582.766	53
Guztira	20.048.885	3	12.472.238	23,5

Transferentzia eta diru-laguntza arruntak 20,05 milioikoak izan ziren, eta 2012ko gastu guztien ehuneko 11 egiten dute. Haien betetze-maila behin betiko kredituen ehuneko 94koa izan zen. Aurreko urtearekin alderatuta, ehuneko hiru egin zuten gora, nagusiki Iruñerriko Mankomunitateari hiri garraiorako egindako 2,54 milioiko ekarpenaren ondorioz.

Kapitaleko transferentzia eta diru-laguntzak 12,47 milioi eurokoak izan ziren. Udalak 2012an eginiko gastu guztien ehuneko zazpi dira. Behin betiko kredituen ehuneko 92ko betetze-maila egiten dute. Ehuneko 23,5 handiagoak izan ziren 2011n emandakoak baino, honako ekarpenak handiagoak izan zirelako: Pamplona Centro Histórico udal sozietateari, 2012ko etxebizitza planerako; Animsari, informatikako inbertsioak egiteko; eta familiei, etxebizitzak zaharbertitzeko.

2012ko apirilean, Udalaren Osoko Bilkurak onetsi zuen 29 onuradunei diru-laguntza izendunak ematea; guztira, 1.114.425 euro egin zuten diru-laguntza horiek.

Transferentzia eta diru-laguntza arrunten ehuneko 25en eta kapitalekoen ehuneko 32ren lagina fiskalizatu da. Honako kontzeptuei dagozkie lagin horiek:

Kontzeptua	Guztira		Lagina	
	Aitortutako betebeharra, guztira	Onuradunen kopurua	Lagineko aitortutako betebeharra	Onuradunen kopurua
Transferentzia arruntak				
Iruñerriko Garraiorako Mankomunitatea	2.540.320	1	2.540.320	1
Animsa	1.850.000	1	1.850.000	1
Garapen bidean dauden herrialdeentzako laguntza	1.085.000	73	208.709	13
Pamplona Centro Histórico	361.443	1	264.087	1
Haurren eta gazteen aisia sustatzea	152.000	10	152.000	10
Kapital-transferentziak				
Etxebizitzak eta hiriko zaharberritzea	3.619.987	541	356.360	51
Pamplona Centro Histórico: Etxebizitzak eta zaharberritzea	2.300.000	1	2.300.000	1
Animsa	849.926	1	849.626	1
Erabilera publikoko espazio pribatuak berrurbanizatzea	531.233	2	531.233	2

Oro har, diru-laguntzak emateko, kudeatzeko eta justifikatzeko prozedurak izapidetu dira diru-laguntzen ordenantza orokorrean, berariazko ordenantzetan (etxebizitzaren zaharberritzearen kasuan) eta diru-laguntzen legean ezarritakoaren arabera. Udal enpresa publikoentzako eta Iruñerriko Mankomunitatearentzako transferentziak justifikatuta daude.

Aztertutako transferentzia eta diru-laguntzak onetsita, zuzen kontabilizatuta eta ordainduta daude.

Udalaren Kontu-hartzaitzak ez du kontrol finantzariarik egiten diru-laguntzaren onuraduna dela eta, baina Kontu-hartzaitzak egiaztatzen du organo kudeatzaileak jarraipen txostena egin duela eta diruz lagundutako gastuak justifikatu dituela.

- Garapen bidean dauden herrialdeentzako diru-laguntzak. Diru-laguntza horietatik ia guztiak deialdi publiko bidez eman ziren, norgehiagokako araubidean nahiz banakako ebaluazioko araubidean. Diru-laguntzak emateko prozedura horretan salbuespen bat izan zen Nafarroako GKE-en Koordinakundea Elkarteari emandako 30.400 euroko diru-laguntza, zeina aurrekontuen exekuzioko oinarrietan diru-laguntza izendun gisa jasota baitzegoen eta itun baten bidez ezarrita baitzegoen. Publizitatearen eta lehiaren printzipioak ezin aplikatzea justifikatzeko arrazoitzat eman zen onuradun horixe dela Nafarroan GKE-ek egiten dituzten jarduketei buruz informatzen duen eta jarduketa horiek koordinatzen dituen elkarte bakarra.

- Haurren eta gazteen aisialdia sustatzeko diru-laguntzak. Deialdi publiko bidez emandakoak dira; hasierako kreditua deialdiko oinarrietan ezarritako formula baten arabera banatzen da. Formularen aplikazioaren ondorioz eskatutakoa baino zenbateko handiagoko onuradun bat dagoenean, eskatutako maileguaren mugaraino ematen zaio, eta gaindikina gainerako onuradunen artean banatzen da. Irizpide hori aplikatzeak –deialdiko oinarrietan ez dago aurreikusita– eragiten du onuradun batzuek jasotzea oinarrietan aurreikusitako formulatik heldu ez diren zenbatekoak.

- Familientzat, etxebizitzarako eta hiriko zaharberritze-lanetarako diru-laguntzak: oro har, aztertutako diru-laguntzak deialdi publiko bidez eman ziren, banakako ebaluazio araubidean, salbu eta hirigintza-intereseko arrazoiengatik zuzenean emandako 156.843 euroko kopurua, zeina itun baten bidez arautu baita.

- Erabilera publikoko eremu pribatuak berrurbanizatzeko diru-laguntzak: 2012ko 531.233 euroko gastua 2009ko eta 2010eko ekitaldietarako 2009an argitaratutako deialdi bateko diru-laguntzei dagozkie. 2011ko amaieran berrurbanizatzeko proiektuak onesteak justifikatzen du obrak

2012ra arte ez egitea. Egiaztatu dugu ezen jabeekideen bi erkidegoek obrak egitea justifikatu zutela kasuko ziurtagiriak aurkeztuz.

- Animsa. Udal enpresa horrek 2012an 3,99 milioi euro jaso zituen guztira Udalarengandik. Udalak ekarpen horiek lau gastu-kapitulutan kontabilizatzen ditu. Hartara, Animsak hirugarrenekin kontratatzen dituen zerbitzuak udalaren enkargu bidez formalizatzen dira eta gastu arrunt nahiz zerbitzuetan egindako gastu gisa edo udal inbertsio gisa kontabilizatzen dira. Aitzitik, sozietate publikoko langileek garatutako proiektu eta zerbitzu informatikoetarako udal ekarpenak transferentzia gisa –transferentzia arruntak nahiz kapitalekoak– erregistratzen dira, eta enpresa publikoarekiko hitzarmen baten bidez arautzen dira.

Animsari 2012an egindako transferentzia arrunta 1.850.000 eurokoa izan zen. Animsak Udalari jasanarazten dio Udaletik, bere funtzionamendu-gastuak finantzatzeko, jasotzen dituen transferentzia arruntan BEZa.

Kapital-transferentzietan dagokionez, 2012an Udalak aurrekontuan aurreikusitako ekarpenaren guztizkoa –849.926 euro– ordaindu dio Animsari. Jokamolde horrekin Udala hurrengo ekitaldian egitekoak diren diru-laguntzak ordaintzen ari da, azkenean enpresa publikoak ekitaldian eginiko gastuak baino dezente handiagoak diren zenbatekoak aurreratuta: 405.445 euro 2010ean, 157.151 euro 2011n eta 255.202 euro 2012an. Halere, kopuru horiek hurrengo ekitaldian konpentsatzen dira, Animsak eginiko proiektuak justifikatzen dituen heinean.

- Pamplona Centro Histórico. 2012an, Udalak 264.087 euroko ekarpena egin zion Pamplona Centro Histórico sozietateari bere funtzionamendu-gastuak finantzatzeko. Sozietate horrek bere gastu arruntak justifikatzen ditu bere urteko kontu ikuskatuak aurkeztuz. Pamplona Centro Histórico sozietateak 126.648 euroko galerak izan zituen 2011n eta 247.040 euroko galerak 2012an. Galera horiek funts bereki gisa kontabilizatutako udal ekarpenaren bidez finantzatu ziren.

Udalak Pamplona Centro Histórico udal sozietateari 2012ko abenduan eginiko 2.368.047 euroko kapital-transferentziaren xedea da 2012ko etxebizitza planean bildutako jarduketak finantzatzea.

Sozietate horrentzako ordainketa egiten da ekitaldian inbertsioetarako aurreikusita dauden diruzaintza-premia errealen arabera.

Desberdinak izaten dira bere udal sozietateek emandako zerbitzuetarako eta enkargatutako inbertsioetarako Udalak erabiltzen dituen prozedura administratiboa eta kontabilitate-tratamendua.

Gure aholkuak:

- *Diru-laguntzen plan estrategikoan ezarritako helburuekin lotutako adierazleak definitzea eta diru-laguntzen jarraipena eta ebaluazioa egitea.*

- *Udalaren Kontu-hartzaitzak onuradunak hartzen dituen diru-laguntzen kontrol finantzarioa egitea, aplikatzekoa den legedian ezarritako moduan.*

- *Animsa enpresari ordaintzea egindako inbertsioen justifikazioa aurkezten duen neurrian; hori ez da eragozpena izanen ekitaldirako aurreikusi den ekarpenaren zati bat kontura ordaintzeko. Horri dagokionez, kapital-transferentzietarako kredituaren aurrekontua egitea Animsak ekitaldian, aurreikusitakoaren arabera, egiten dituen informatikako inbertsioen arabera.*

- *Kontzesioaren oinarrietan jasotzea haurren eta gazteen aisialdia sustatzeko diru-laguntzetarako erabiltzen diren irizpide guztiak.*

VII.6. TRIBUTUAK, PREZIO PUBLIKOAK ETA UDALAREN BESTELAKO DIRU-SARRERAK

Honakoak izan ziren 2012an tributuengatik (zergak eta tasak), prezio publikoengatik eta bestelako diru-sarrerengatik aitortutako eskubideak:

(euroak, milioitan)

Kontzeptua	Kopurua	Betetakoa (%)	2012/11 aldea
Zuzeneko zergak	48,07	96	-3%
Zeharkako zergak	9,81	140	-28%
Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	24,84	97	-9,5%

Zenbateko handiena egiten duten eskubide aitortuak honakoei dagozkie: hiri kontribuzioa – 25,95 milioi–; eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga –9,81 milioi–; zirkulazio zerga –9,41 milioi–; jarduera ekonomikoen gaineko zerga –8,37 milioi–, eta bide publikoan aparkatze arautuaren (MUGA) bidezko diru-sarrerak –7,18 milioi–.

Udalak aplikatutako tasak Toki Ogasunei buruzko 2/95 Foru Legeak jasotzen duen sortaren tarte altuan kokatzen dira, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala:

Tributua	Udala	2/95 Foru Legea
Hiri-lurraldeko kontribuzioa	0,354	0,10 - 0,50
Landalur kontribuzioa	0,773	
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	1,32 eta 1,40 bitarte	1 - 1,4
Lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga	17,40	8-20
Eraikuntza, instalazio eta obrak	4,96	2-5
Luxuzko gastuen gaineko zerga	8	10, gehienez
Etxebizitza hutsen gaineko zerga	0,1416	0,04-0,2

Honako zerga, tasa eta berandutze nahiz geroratzeen interesengatik diru-sarreraren lagin bat fiskalizatu dugu:

Kontzeptua	Diru-sarrerak	2012/11 aldea
Lurzoruaren balio-gehikuntzaren gaineko zerga	3.422.333	-6%
Bingo-sarien gaineko zerga	900.007	-21%
Ibilgailuak bide publikotik eramatea	811.149	-10%
Barrakak, kaleko industriak eta herriz herrikoak	729.115	-31%
Hilerriko zerbizua	600.454	-33%
Berandutze eta geroratzeen interesak	720.217	111%

Barraken eta kaleko nahiz herriz herriko industrien bidez lortutako diru-sarrerak 2011koak baino ehuneko 31 txikiagoak izatearen arrazoia da Sanferminetako "Runa" aldeko barrakak, 2012an 436.303 euroko diru-sarrerak ekarri dituztenak, Erruki Etxeak kudeatzen dituela 2012tik aurrera.

Arestian aipatutako tributuen lagin batean egiaztatu dugu ezen, orokorrean, haien likidazioa eta diru-bilketa ordenantzen eta arau erregulatzailleen arabera egin direla.

Alabaina, ondorengo puntu hauek azpimarratu nahi ditugu:

- Bingoaren gaineko zergan, jokia antolatzen duen enpresak, hilabete bakoitzaren lehenengo hamar egunetan, behar den aitorten-likidazioa aurkeztu beharra dauka. Iruñean dauden bi enpresetatik, batek ez ditu zerga-betebeharrak betetzen. Enpresa horrek 971.437 euro zor dizkio

Udalari, 2009ko, 2011ko eta 2012ko ekitaldiei dagozkienak. Premiamendu-prozeduran dago kasua. 2012ko ekitaldian, enpresak ez zituen aitortpenak aurkeztu eta Udalak behin-behineko bi likidazio egin zituen, Foru Administrazioetik lortutako datuak oinarri hartuta; halere, ez zion inongo zehapenik ezarri tributuaren arloko arau-hauste larri horrengatik. 2013an, Udalak dokumentazioa eskatu dio enpresari 2010eko, 2011ko eta 2012ko tributu-ikuskapena egiteko, behin-behineko likidazioak behin betiko bihurtzeko eta kasuko zehapenak ezartzeko.

- Ibilgailuak erretiratzegatik tasak. Tasa hori isunak kudeatzen dituen udal zerbitzu berak kudeatzen ditu, eta eskudirutan eta txartel bidez kobratzen du. Kudeaketaren arduradunak ez du sarbiderik diru-bilketarako udal programara, eta ez egiten dituen kontrolak ez ditu jasota uzten. Horrek guztiak kontrola ahula izatea dakar berarekin, eta tasaren likidazioan zein kobrantzan akatsak izatea eragin dezake.

- Hilerrria. Hilerriko zerbitzuengatik 2012an kontabilizatutako diru-sarrerak 2011ko abendutik 2012ko urrira bitarte sortutako zerbitzuei dagozkie. Hilobi, horma-hobi eta kolunbarioen kontzesioetako luzapenen bidezko diru-sarrerak kontabilizatzeko irizpidea aldatu zen. 2012tik aurrera ondare bidezko diru-sarrera gisa kontabilizatzen dira. Diru-sarrera horiek 220.000 eurokoak izan ziren 2012an, eta azaltzen dute, funtsean, tasa eta prezio publikoen hirugarren kapituluaren kontabilizatutako hilerrri-zerbitzuengatik diru-sarrerak ehuneko 33 behera egin izatea.

- Berandutza- eta geroratze-interesaren kontusailean 99.000 euro kontabilizatu dira, errekaru kontzeptuan.

Aurrez azaldutako diru-sarreraren lagina fiskalizatzeaz gainera, honako alderdiak egiaztatu ditugu tributu bidezko diru-sarrerak direla-eta:

- Udalak ez du balorazio ponentzia gaurkotu 1998tik, eta ez da egokitu Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen ezarritako luraren kontribuzioko tasa bakarrera; izan ere, jarraitzen du oraindik ere landa izaerako ondasunei eta hiri-ondasunei tasa berezituak aplikatzen.

Nafarroako Lurraldearen Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzko 12/2006 Foru Legeak ezartzen du honako kasuetan, besteak beste, beste ponentzia bat onetsiko dela: onetsi zenetik edo azken berrikuspenera egin zenetik gehienez bost urteko epea iragan denean, zoruaren erabilera- edo aprobetxamendu-baldintzetan aldaketak izan direnean; edo ondasun higiezin multzo adierazgarri baten erregistro-balioen batez bestekoa Nafarroako Zerga Ogasunak haren hartan higiezin horiei emandako balioen batez bestekoa baino ehuneko 20 txikiagoa denean.

Udal plana, 2002an onetsi zena, ponentziaren azken berrikuspenera baino geroagoa da. Desadostasun batzuk badaude bi agiri horien artean, besteak beste lurzoru batzuen sailkapenari dagokionean. Hartara, udal planak hiri lurzorutzat edo lurzoru urbanizagarritzat jasotzen dituen eremu batzuk ponentzian landa-lurzoru gisa ageri dira. Bestalde, ponentziak ez ditu jasotzen planeamenduan egindako aldaketak, eta horrek, besteak beste, berarekin dakar lurren balio gehikuntzaren gaineko zergaren behin-behineko likidazioa egitea ponentziatik heldu den landa-balioaren arabera eta luraren kontribuzio kuota txikiagoak izatea, zeren eta hiri garapenera azken eremuetako (Arrotxapea berria, Ezkaba, Buztintxuri, Lezkairu eta abar) lurren balorazioa ez baitator bat hiri-errealitate berriarekin.

2012ko martxoaren 6an, balorazio ponentzia egiteko proiekturako laguntza-kontratua esleitu zen, 44.999 euroko prezioan. 2012ko irailaren 26ra arteko epea eman zen horretarako. 2012ko ekainaren 5ean, Udalak kontratua bertan behera uzteko agindu zion enpresa esleipen-hartzaileari. 2012ko amaieran, egindako lanak likidatu ziren -23.072 euroan baloratu ziren-, eta udalak kontratua desegin zuen, ponentziaren helburua eta berrikuspeneraren esparrua higiezin merkatuaren egungo egoeraren arabera egokitzeke.

Gaur egun, Udalak 14.967 euroko prezioan, BEZik gabe, esleitu du balorazio partzialeko ponentziaren proiektua egitea.

- Udalak ez du hutsik dauden etxebizitzaren erregistroari egin. Baldintza hori ezinbestekoa da egoera horretan dauden etxebizitzaren gaineko zerga ordainarazteko.

- Udalak EIOZaren behin betiko likidazioa egiten du, obraren amaierako kostuen arabera, subjektu pasiboak aurkeztutako dokumentazioan oinarrituta. Zerga kudeatzen duen alorrak ez ditu beti egindako obraren kostu erreala baloratzeko behar diren langile teknikariak.

Gure aholkuak:

- *Obren kostu erreala baloratzeko, beste Udal alor batzuetako teknikariek lankidetzan jarduteko tresnak ezartzea, EIOZaren behin betiko likidazioa egite aldera.*
- *Kontrol prozedurak ezartzea, ibilgailuak bide publikotik erretiratzeko tasaren kudeaketan sor daitezkeen akatsak hauteman ahal izateko eta egindako kontrol eta berrikuspenak jasota utzi ahal izateko.*
- *Kontabilitateko oroitidazkian jasota uztea kontabilitate-irizpideetan izandako aldaketa guztiak.*

VII.7. ONDARE BIDEZKO DIRU-SARRERAK

Udalaren 2012ko ondare bidezko diru-sarrerak 2,88 milioikoak izan ziren. Zenbateko hori Udalaren diru-sarrera guztien ehuneko bat da. 2011n sortutakoak baino ehuneko 31 gehiago izan ziren, kontzesio eta kanonengatiko diru-sarrerak ehuneko 67 egin baitzuten gora: 2012an 1,74 milioi euro egin zuten.

Kontzesioen eta kanonen lagin bat aztertuta, aurkitu dugu zuzen likidatu direla. Alabaina, haien kobrantza ez da egiten araudian ezarritako epeetan; izan ere, nabarmentzekoa da Baluarteko aparkalekuaren kontzesioaren kanonaren ordainketa ia urtebete atzeratu dela.

35.000 euroko kopuru bat ondare bidezko diru-sarrera gisa kontabilizatu da, Sanferminetan bide publikoa okupatzeagatiko tasaren kontzeptuan.

Finantza-kontuen interesak 68.631 eurokoak izan ziren. 2012an zehar, eperako bi ezarpen eratu ziren, guztira lau milioi eurokoak, ehuneko 2,4ko eta 2,6ko interes-tasarekin, aurrez sei finantza-entitateri eskaria eginda.

Gure aholkuak:

- *Exijitzea Baluarteko aparkalekuaren kontzesioaren kanonaren araudian ezarritako epean kobratu dadila.*

VII.8. UDALAREN INBERTSIO ERREALEN BESTERENTZEA

Inbertsioen besterentzearen bidez Udalak 2012an izandako diru-sarrerak 1,06 milioi euro egin zuten: 2012ko ekitaldian aitortutako diru-sarrera guztien ehuneko 0,5 izan ziren. Aurreko ekitaldian sortutakoak -22,43 milioi euro- baino ehuneko 95 txikiagoak izan ziren.

2012-2015 finantza-programan, Udalak kalkulatu zuen 2012an 9,5 milioi euroko diru-sarrerak izanen zituela inbertsioen besterentzearen bidez; diru-sarrera horiek ez ziren aurreikusi 2012ko aurrekontuan. 2012an, Udalak iragarri zuen 13 lursail enkantera aterako zituela, guztira 26,45 milioi egiten duen lizitazio prezioan. Enkantea eman gabe geratu zen.

Lursailen salmentaren bidezko diru-sarrerak, 2012an, 736.436 euro egin zuten, BEZik gabe. Diru-sarrera horietatik, honakoak aztertu ditugu:

- Enkante publiko bidez eginiko besterentzea, XIX-Arrosadia Unitate Integratuko ARZ-6 banaketa-arloko 1.1 lursailaren (etxebizitza-erabilera dauka) jabetzaren ehuneko 9,96ko partaidetzarena. 574.580 eurokoa izan zen besterentzea, BEZik gabe.
- Erripagainako VPS-2 eta VPS-3 lursailen besterentzea, 131.130 euro egiten duena, BEZik gabe, zuzeneko esleipen bidez.

Lursail horien salmenta hirigintza-legediaren eta aplikatzekoa den ondasunen gaineko araudiaren arabera izapidetu da. Salmentatik lortutako diru-sarrerak etxebizitzaren zaharberitzearekin lortutako kapital-gastuen finantzaketari atxiki zaizkio nagusiki.

Zuzeneko esleipena justifikatu zen sotoak aparkaleku gisa arautu nahi zirelako. Erripagainako udalez gaindiko plan sektorialaren aldaketak horretarako bidea ematen zuen, zeren eta lursailen

eraikigarritasunaren handitzea onesten baitzuen, Hirigintzaren eta Etxebizitzaren arloan Urgentziazko Neurriak hartzeko 6/2009 Foru Legean ezarritakoaren babesean, Udalari unitate morfologiko bera osatzen duten eraikinen ondoan zegoen eremu publiko bat erositia.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeak zuzeneko besterentzea aurreikusten du, besterentze mota horretarako hirigintza-legedian edo beste lege sektorial batzuetan ezarritako baldintza zehatzak betetzen direnean.

Txosten hau, indarrean dagoen araudiak ezarritako izapideak bete ondoren, Asunción Olaechea Estanga kontu-ikuskari andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2013ko azaroaren 21ean

Lehendakaria, Helio Robleda Cabezas

1. ERANSKINA. GASTUEN ETA DIRU-SARREREN AURREKONTU-BETETZEA, KAPITULUEN ARABERAKOA (2006-2012)**Gastuak**

Kapitulua	Deskribapena	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	Aldea (%), 2012/2011	Aldea (%), 2012/2006
1	Langileen gastuak	72.682.595,69	76.323.468,67	81.032.108,04	84.428.674,38	83.631.061,99	82.340.711,14	77.846.044,09	-5,46	7,10
2	Ondasun eta zerbitzuetan egindako gastuak	70.463.489,07	71.094.161,41	73.821.763,00	73.476.801,35	72.943.025,79	72.002.034,87	65.759.907,36	-8,67	-6,68
3	Finantza-gastuak	1.150.432,33	1.715.882,41	2.827.440,43	2.671.636,19	2.045.768,85	2.591.540,20	3.088.513,53	19,18	168,47
4	Transferentzia aruntak	6.782.740,38	7.417.635,93	8.980.837,85	9.846.855,44	12.352.433,34	12.665.324,82	13.663.271,25	7,88	101,44
6	Inbertsio errealak	77.414.440,89	151.244.083,02	71.735.206,73	99.971.330,62	82.388.668,71	46.008.686,17	28.385.330,52	-38,30	-63,33
7	Kapital transferentziak	6.187.174,99	10.453.983,95	11.635.928,75	8.314.000,95	10.305.065,88	6.351.671,40	8.077.280,73	27,17	30,55
8	Finantza-aktiboak	1.883.159,46	2.023.398,77	2.288.522,35	2.000.035,68	2.279.998,28	2.087.569,97	2.045.204,76	-2,03	8,60
9	Finantza-pasiboak	1.506.029,93	3.032.728,01	2.798.621,62	3.596.098,42	4.420.068,46	5.465.526,61	5.509.944,42	0,81	265,86
		238.070.062,74	323.305.342,17	255.120.428,77	284.305.433,03	270.366.091,30	229.513.065,18	204.375.496,66	-10,95	-14,15

Diru-sarrerak

Kapitulua	Deskribapena	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	Aldea (%), 2012/2011	Aldea (%), 2012/2006
1	Zuzeneko zergak	45.153.747,24	46.521.079,53	47.207.612,13	50.333.316,28	50.799.629,0	49.439.874,7	48.072.801,64	-2,77	6,46
2	Zeharkako zergak	5.086.817,90	6.031.271,77	7.110.150,91	8.750.879,28	6.519.397,0	13.711.169,5	9.814.864,42	-28,42	92,95
3	Tasak eta bestelako diru-sarrerak	24.720.284,61	28.602.177,61	29.156.754,32	32.052.168,34	26.691.372,1	30.235.751,8	28.302.707,87	-6,39	14,49
4	Transferentzia aruntak	74.259.451,75	80.021.929,38	86.280.077,70	90.853.656,61	96.128.611,4	91.629.560,6	93.235.077,47	1,75	25,55
5	Ondare bidezko diru-sarrerak	23.736.504,72	4.878.722,86	5.279.733,33	2.425.193,50	2.685.494,9	2.479.917,7	2.929.690,33	18,14	-87,66
6	Inbertsio errealen besterentzea	21.633.730,29	9.874.685,47	37.487.730,44	13.091.020,05	5.094.435,8	22.426.695,6	1.057.224,57	-95,29	-95,11
7	Kapital-transferentziak	16.683.972,12	83.365.092,80	47.886.067,08	63.680.547,20	46.428.560,3	26.536.289,5	24.135.683,31	-9,05	44,66
8	Finantza-aktiboak	1.882.400,28	1.990.694,33	2.137.937,76	2.099.408,33	2.268.412,2	2.094.295,2	2.052.098,38	-2,01	9,01
9	Finantza-pasiboak	0,00	15.000.000,00	15.000.000,00	32.000.000,00	0,00	14.350.000,00	16.000.000,00	11,50	
		213.156.908,91	276.285.653,75	277.546.063,67	295.286.189,59	236.615.912,86	252.903.554,54	225.600.147,99	-10,80	5,84

2. ERANSKINA. EMAITZAK (2006-2012)

	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	Guztira
Zuzeneko zergak	45,2	46,5	47,2	50,3	50,8	49,4	48,1	337,5
Zeharkako zergak	5,1	6,0	7,1	8,8	6,5	13,7	9,8	57,0
Tasak eta bestelako diru-sarrerak	24,7	28,6	29,2	32,1	26,7	30,2	28,3	199,8
Transferentzia arruntak	74,3	80,0	86,3	90,9	96,1	91,6	93,2	612,4
Ondare bidezko diru-sarrerak	23,7	4,9	5,3	2,4	2,7	2,5	2,9	44,4
A Diru-sarrera arruntak guztira	173,0	166,1	175,0	184,4	182,8	187,5	182,4	1.251,1
Langileen gastuak	72,7	76,3	81,0	84,4	83,6	82,3	77,9	558,3
Ondasun eta zerbitzuetan egindako gastua	70,5	71,1	73,8	73,5	72,9	72,0	65,8	499,6
Finantza-gastuak	1,2	1,7	2,8	2,7	2,0	2,6	3,1	16,1
Transferentzia arruntak	6,8	7,4	9,0	9,8	12,4	12,7	13,7	71,7
B Gastu arruntak guztira	151,1	156,6	166,7	170,4	171,0	169,6	160,4	1.145,6
C Emaiza korrontea (a-b)	21,9	9,5	8,4	14,0	11,9	17,9	22,0	105,5
Inbertsio errealen besterentzea	21,6	9,9	37,5	13,1	5,1	22,4	1,1	110,7
Kapital-transferentziak	16,7	83,4	47,9	63,7	46,4	26,5	24,1	308,7
D Kapitaleko diru-sarrerak, guztira	38,3	93,2	85,4	76,8	51,5	49,0	25,2	419,4
Inbertsio errealak	77,4	151,2	71,7	100,0	82,4	46,0	28,4	557,1
Kapital transferentziak	6,2	10,5	11,6	8,3	10,3	6,4	8,1	61,3
E Kapitaleko gastua, guztira	83,6	161,7	83,4	108,3	92,7	52,4	36,5	618,5
F Kapitaleko emaitza (D-E)	-45,3	-68,5	2,0	-31,5	-41,2	-3,4	-11,3	-199,1
G Emaiza ez-finantzarioa (C+F)	-23,4	-59,0	10,4	-17,5	-29,3	14,5	10,7	-93,6
Finantza-aktiboak	1,9	2,0	2,1	2,1	2,3	2,1	2,1	14,5
Finantza-pasiboak	0,0	15,0	15,0	32,0	0,0	14,4	16,0	92,4
H Finantza diru-sarrerak, guztira	1,9	17,0	17,1	34,1	2,3	16,4	18,1	106,9
Finantza-aktiboak	1,9	2,0	2,3	2,0	2,3	2,1	2,0	14,6
Finantza-pasiboak	1,5	3,0	2,8	3,6	4,4	5,5	5,5	26,3
G Finantza-gastua, guztira	3,4	5,1	5,1	5,6	6,7	7,6	7,6	40,9
I Finantza emaitza (H-G)	-1,5	11,9	12,1	28,5	-4,4	8,9	10,5	65,9
J Aurrekontuaren emaitza (G+I)	-24,9	-47,0	22,4	11,0	-33,8	23,4	21,2	-27,7
Finantzaketaren desbideratze positiboa	-35,3	-5,4	-23,1	-27,1	-6,6	-7,4	-18,6	-113,5
Finantzaketaren desbideratze negatiboa	39,7	45,9	8,9	25,5	12,1	2,8	4,1	139,0
Diruzaintza-gerakinaz finantzatutako gastuak	0,0	0,1	0,0	10,0	0,0	0,0	0,0	10,1
K Aurrekontu-emaiza doitu (J +/- Desbideratzeak)	-20,5	-6,4	8,3	19,4	-28,2	18,7	6,7	-2,0
Aurrezki gordina	23,0	11,2	11,2	16,7	13,9	20,5	25,1	121,6
Aurrezki garbia	20,4	6,4	5,6	10,4	7,4	12,4	16,5	79,1

3. ERANSKINA. ADIERAZLEAK (2006-2012)

Adierazlea	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012
Diru-sarrereren betetze-maila	72,63	73,57	80,34	80,48	75,25	84,69	99,20
Gastuen betetze-maila	78,01	85,31	77,77	77,64	81,51	78,73	88,20
Kobrانتzen betetzea	93,51	89,87	90,70	88,68	90,89	91,08	90,57
Ordaintzen betetzea	79,33	73,71	81,98	87,92	79,41	86,13	86,16
Zorpetze-maila	1,54	2,86	3,21	3,40	3,54	4,30	4,72
Zorpetze-muga	13,31	6,76	6,4	9,04	7,60	10,93	13,76
Zorpetze-ahalmena	11,78	3,9	3,18	5,64	4,07	6,63	9,04
Aurrezki garbia	11,78	3,9	3,18	5,64	4,07	6,63	9,04
Langile-indizea	30,53	23,61	31,76	29,7	30,93	35,88	38,09
Inbertsio-indizea	35,12	50,01	32,68	38,09	34,28	22,81	17,84
Diru-laguntzekiko mendekotasuna	42,67	59,14	48,34	52,33	60,25	46,72	52,03
Biztanleria	195.769	194.894	197.275	198.491	197.488	197.932	197.604
Biztanle bakoitzeko diru-sarrerak	1.089	1.418	1.407	1.488	1.198	1.278	1.142
Biztanle bakoitzeko gastuak	1.216	1.659	1.293	1.432	1.369	1.160	1.034
Biztanle bakoitzeko gastu arruntak	772	803	845	859	866	857	812
Zerga presioa, bizilaguneko	383	416	423	459	425	472	436
Biztanle bakoitzeko finantza-zama	14	24	29	32	33	41	44
Zor bizia biztanleko	245,64	308,15	366,28	509,62	489,49	533,29	586,91
Biztanle bakoitzeko superabita edo defizita			41,99	97,95	-142,84	94,69	33,92
Biztanle bakoitzeko hirigintzako gastua						26,41	29,66
Hirigintzatik heldutako sarrerek diru-sarrereren guztizkoan egiten duten ehunekoa						22,41	25,12
Ordaintzeko batez besteko epea (1)			65,78	44,08	75,16	50,64	50,51
Tributuen kobrantzarako batez besteko aldia (2)			28,91	26,05	26,32	47,52	50,39

(1) Gardentasun-adierazlearen definizioaren arabera kalkulatua. Fakturak ordaintzeko batez besteko aldia, kontu-ikuskaritzako txostena barne.

(2) Gardentasun-adierazlearen definizioaren arabera kalkulatua.